



**Getxoko Hiri-antolamenduko Plan
Orokorra Berrikusteko Aurrerakinaren
Atarikoaren II. Faseko Parte-hartze
Prozesuaren Memoria**

Laburpena

1. Sarrera.....	3
2. Prozesuaren faseak.....	3
3. Parte hartzeko metodologia	4
4. Ekintza parte-hartzaileen deskribapena – 2. fasea	5
4.1 Prestakuntza-aldia.....	5
4.2 Partaidetza-aldia	5
4.3 Ebaluazio-aldia	8
5. 2 Fasearen emaitza nagusiak - balorazio eta ekarpen nabarmenak -	8
5.1 Etxebizitza beharrak eta eskaintza definitzeko irizpideen balorazioaren emaitzak	9
5.2 Taldeek aukera anitzekin lotuta aurkeztutako ekarpenen eta proposamenen emaitzak	13
6. Parte-hartze prozesuaren ebaluazioa	27
6.1 Lehenengo saioaren balorazioak	27
6.2 Bigarren saioaren balorazioak.....	28
6.3 Hirugarren saioaren balorazioak	29
6.4 Laugarren saioaren balorazioak.....	31
6.5 Parte-hartze prozesu osoaren balorazioa	32
7. Prozesuaren datu estatistikoak.....	34
8. Irudiak.....	36
Eranskinak:	42

1. Sarrera

Getxoko Hiri-antolamenduko Plan Orokorren Berrikuspenaren (aurrerantzean, HAPOren Berrikuspena) Aurrerakinaren Atarikoaren II. Faseko Parte-hartze Prozesuaren Memoria egikaritze-aldian zehar (2013ko irailetik 2014ko urtarrilera) burututako partaidetzako metodologiak eta ekintzak jasotzen dituen agiria da.

Partaidetzako ekintzak Herritarrek Parte Hartzeko onartutako Programan oinarrituta garatu dira.

Orain arte burututako parte-hartze prozesuak Lantaldeari – Getxoko herritar eta erakunde taldeari – ondorengoei buruzko ekarpen eta proposamen anitzak egiteko aukera eman dio:

- Datozen zortzi urteetarako – HAPO indarrean egongo den denbora – etxebizitza beharrei buruzko analisia eta kalkulua.
- Hiri-lurzoruko egikaritze-unitateen kudeaketa-mailaren analisia.
- Lurzoru horietan sartzen diren etxebizitzaren kalkulua.
- Aukeren proposamen ezberdinak planoetan grafikoki kokatzea.

2. Prozesuaren faseak

Parte-hartze prozesua Aurrekinaren Atarikoari buruz burutu zen, bigarren fase teknikoari buruz, alegia:

- I. Herritarrek Parte Hartzeko Programa eta Aurretiazko Azterlanak
- II. Aurrerakinaren Atarikoa¹
- III. Aurrerakina
- IV. HAPOren Berrikuspenaren irizpideen eta helburuen erabakia
- V. HAPOren Berrikuspenaren idazketa eta hasierako onespena
- VI. HAPOren behin-behineko onespena
- VII. HAPOren behin betiko onespena

Jarraian aurkezten den memoria **Aurrerakinaren Atarikoa** deritzon bigarren fasearen barruan sartzen da; fase horren barruan, **ondorengo azpi-fase nagusiak aipatu behar dira**:

- a) Idazketa-taldeak Aurrekinaren Atarikoa idaztea.
- b) Lantaldearen bigarren lan-deialdia.
- c) Aholku Batzordeari Aurrerakinaren Atarikoari buruzko kontsulta egitea.
- d) Aurrerakinaren Atarikoari buruzko udal txosten teknikoak.
- e) Aurrerakinaren Atarikoa jendaurrean jartzeko eta Ingurumen Sailburuordetzari bidaltzeko erabakia.
- f) Ingurumen Sailburuordetzari kontsulta egitea, Erreferentziako Agiria eskuratzeko.
- g) Aurrerakinaren Atarikoa jendaurrean jartzea. (hilabete bat)

¹ Egikaritze-aldian dagoen fasea

- h) Aholku Batzordeari jendaurrean jarritako Aurrerakinaren Atarikoari buruzko informazioa ematea.
- i) Herritarren lehenengo parte-hartze prozesuari buruzko idazketa-taldearen txostena.
- j) Herritarren lehenengo parte-hartze prozesuari buruzko Udaleko Zerbitzu Teknikoen txostena.

3. Parte hartzeko metodologia

Prozesuan zehar, “Delibera - Serveis de Participació Interactiva S.L.” erakundeak diseinatutako hausnarketarako metodologia erabili da; metodologia horrek batere eraginkorrak ez diren ohiko partaidetza moduetatik harago joateko aukera ematen du; ohiko metodologiak gehiago egoten dira eztabaidatzera, debatitzera, irabaztera eta galtzera bideratuta, argudio anitzetatik ikastera baino, adostasun-maila ezberdinak ikusteko oinarri gisa. Metodologia honek prozedura berriak erabiltzen ditu; hitz egiteko txandarik eta bozketarik gabe, landu beharreko gaiak adosten laguntzen du, pertsona guztiek beraien iritziak eman eta iritzi horiek argudiatu ahal izatea ziurtatuz eta, aldi berean, adostasun-maila ikustea eta aldatzea ahalbidetzen du; guzti hori, zuzeneko dinamika (batzarrak, Delibera txarteekin) dinamika telematikoekin (*deliberaweb* foroak) integratuz.

Metodologia horri esker, batzar askoren eraginkortasunik eza gainditzen da eta motibazioa galarazten duten inertiak hausten dira, aldi berean, taldearen intelijentzia eta eraginkortasuna hobetuz.

Horrela, partaidetza ez da adierazpide librean eta gehiengoak lortzean zentratzen, baizik eta arazo kolektiboak, gizarte konplexu baten erronka komunei, aurre egiteko aukera ematen duten prozesuak eraikitzen bideratzen da.

Metodologia horrek, gainera, parte-hartze prozesuaren etapa ezberdinetan bakoitzaren esku-hartzea errazten du: arazoak planteatzea eta lehenestea, irtenbideak proposatzea, horien komenigarritasunari buruz hausnartzea eta adostea eta horiek aplikatzen, ebaluatzen eta jarraipena egiten inplikatzeko.

Azken batean, metodologia parte-hartzaile horrek:

- Entzuten, arrazoitzen, argudiatzen, adostasunak bilatzen eta irtenbide berriak eraikitzen laguntzen du.
- Lortutako emaitzari indar eta legitimitate handiagoa ematea ahalbidetzen du, partaide guztiak inplikatzeko baititu, batzuetan gehiengoaren jarrera alda ditzaketen gutxiengoei ahotsa emanez.
- Batzarrak eraginkorrak izango direla, akordioak lortuko direla eta emaitzak ikusiko direla bermatzen du.

Fase anitzetan zehar burutzen diren prozeduren kalitatea hobetzeko eta bermatzeko, *delibera* sistemak koloreen (semaforoaren) jolasa eskaintzen du, ikono (*smilers*) batzuekin, webgunean zein paperean, digitalki zein zuzenean erabiltzeko eta aukera sorta batekin (koloredun txartelak ikonoekin). Sistema horrek, taldekide bakoitzari lantzen den edozein gairi buruz daukan jarrera modu errazean eta ikusgarrian adierazteko bidea ematen dio eta

hausnarketa-prozesu arinak, gardenak eta emaitzetara bideratutakoak lortzen laguntzen du.

4. Ekintza parte-hartzaileen deskribapena – 2. fasea

4.1 Prestakuntza-aldia

Aldi edo etapa horretan Lantaldeari eta prozesuan inplikaturako gainerako eragileei zuzendutako partaidetza-proposamena landu zen, saioetan aurkeztu eta landu beharreko edukia definitu eta didaktikoki eta modu ulergarrian egokitu zen, Lantaldearen partaidetzara aurkezteko.

Fase horretan zehar koordinaziorako eta prestakuntzarako hainbat batzar egin zen idazketa-taldearen eta parte-hartze prozesuaren talde dinamizatzaileren artean.

Aldiaren iraupena: irailaren 20tik urriaren 20ra

4.2 Partaidetza-aldia

Lehenengo saioa:

Urriaren 23an egin zen lehenengo saioa edo batzarra (17:00etatik 21:00etara), ondorengo egitarauarekin:

- Ongi-etorria eta Aurrerakinaren Atarikoaren II. fasearen helburuen eta esparruaren aurkezpena.
- Udalerriko jarduera ekonomikoaren analisiari buruzko Getxolanen azalpena.
- Fase horretako eztabaidarako bildutako datuen eta egindako lan-agiriaren aurkezpen teknikoa.
- Web-foroetan parte hartzeko edukien eta metodologiaren aurkezpena.
- Orain arte aurkeztutakoari buruz sortutako zalantzak argitzea eta iradokizunak eta oharpenak egitea.
- Lantzeko beste gai batzuk eta saioaren ebaluazioa.

[Ikus 2. Eranskina. Lantaldeari 1. saiorako egindako Deialdia]

[Ikus 3. Eranskina. Lantaldearen lehenengo saioaren egitaraua - urriak 23]

[Ikus 4. Eranskina . Parte hartzeko metodologiaren agiria]

Urriaren 29an ireki ziren *deliberaweb* foro biak, bata Lantaldeko kideentzako eta bestea ordezkentzako, baloratu eta komentatu beharreko baieztapenekin. Tresna informatikorik ez zutenentzako, paperezko euskarrian banatu ziren beharrezko materialak.

[Ikus 5. Eranskina . Pasahitzak bidaltzeko posta elektronikoaren eredu]

Partaidetza webgunean eta paperean (1)

Eragile anitzek 11 baieztapen eta proposamen baloratu eta komentatu ahal izan zituzten eta horiei buruzko iruzkinak eta iradokizunak egiteko aukera ere izan zuten. Parte hartzeko kanalak bi izan ziren: Web-foroak eta papereko galdetegiak.

Web bidezko eta paper bidezko parte-hartzea 17 egunez egon zen irekita (urriaren 29tik azaroaren 14ra); denbora-tarte horretan, balorazioak eta ekarpenak egin ahal izan ziren, gazteleraz zein euskaraz.

Prozesu horretan zehar, zalantzak eta arazoak argitzeko kanalak martxan egon ziren, horretarako jarritako helbide elektronikoko baten bitartez.

(Laguntzarako e-posta: info@delibera.info)

Web eta paper bidezko partaidetza-aldia itxi zenean, datuak jaso eta azertu ziren, bigarren saioa prestatzeko. Behin partaidetzarako kanalak itxi zirenean, prozesuaren emaitzen txostenak prestatu eta hausnarketa-saioetarako egokitu ziren, ondorengo eskemari jarraituz:

- Partaideei, balorazioei eta iruzkinei buruzko datu kuantitatiboak.
- Baieztapen anitzen adostasun-mailaren aurkezpena eta, egindako iruzkinetan oinarrituta, adostasun falta handiena duten baieztapenak birformulatuta, proposamenak prestatzea.

[Ikus 6. eranskina. Web-foroetako partaideen zerrenda – 1. Foroa -]

[Ikus 7. eranskina. Lantaldearen papereko galdetegia – 1. Foroa -]

Lehenengo eta bigarren saioen artean, zalantzak argitzeko eta abarrerako bi batzar egin ziren.

Datak: urriaren 30ean (13 pertsona) eta azaroaren 2an (11 pertsona)

Bigarren saioa (hausnarketarakoa):

Web-foroetan parte hartzeko eta papereko galdetegiak entregatzeko epea amaitu ondoren, bigarren saiorako deialdia egin zitzaien lehenengoan parte hartu zuten pertsona bereber, jasotako ekarpenen gaineko hausnarketa egiteko.

Bigarren saioa azaroaren 21ean egin zen (17:00etatik 21:00etara) eta ondorengo egitaraua izan zuen:

- Aurkeztutako baieztapen bakoitzaren adostasun-mailaren aurkezpena. Iruzkinetan jasotako ideia nabarmenak eta baieztapenaren proposamen laburtua aurkeztu ziren.. Hainbat kasutan, birformulatze-proposamenak egin ziren, foroetan jasotako iruzkin orokorretan eta espezifikoetan oinarrituta. Gainera, Lantaldearen beraren eskariz, babespeko etxebizitzari buruzko baieztapen berria gehitu zen.

- Aurkeztutako baieztapenen adostasun/desadostasun maila berriak eskuratzea, bertaratutakoek adierazitako eta Deliberaren koloretako txartelen bitartez baloratutako argudioetan oinarrituta.

- Saioaren balorazioa

[Ikus 8. Eranskina. Lantaldeari 2. saiorako egindako Deialdia]

[Ikus 9. Eranskina . Web-foroen eta Lantaldearen saioaren emaitzak]

[Ikus 10. Eranskina . Emaitzei buruzko informazioa emateko e-posta]

Saioa amaitzerakoan, Lantaldeko kideei jakinarazi zitzairen web-foroetan parte har zezaketela berriz ere, gaietako batean sakontzeko edo landu gabe geratutako gairen bat lantzeko.

Partaidetza webgunean eta paperean (2)

Partaidetzarako kanalak berriro ireki ziren 13 egunez (abenduaren 3tik 16ra), etxebizitza beharrei eta biztanleriaren bilakaerari buruzko lau gai lantzeko. Eragileek baieztapenak eta proposamenak baloratu eta komentatu ahal izan zituzten. Parte hartzeko kanalak bi izan ziren: web-foroak eta papereko galdetegiak.

Prozesu horretan zehar, zalantzak eta arazoak argitzeko kanalak martxan egon ziren, horretarako jarritako helbide elektroniko baten bitartez: (Laguntzarako e-posta: info@delibera.info).

[Ikus 11. Eranskina . Parte-hartzea gogorarazteko e-posta eredu]

[Ikus 12. Eranskina . Web-foroetako parte hartu duten erabiltzaileen zerrenda – 2. Foroa -]

[Ikus 13. Eranskina . Lantaldearen papereko galdetegia – 2. Foroa -]

Hirugarren saioa:

Web-foroetan parte hartzeko eta papereko galdetegiak entregatzeko bigarren epea amaitu ondoren, hirugarren saiorako deialdia egin zitzairen lehenengoan parte hartu zuten pertsona bereberei, jasotako ekarpenen gaineko hausnarketa egiteko eta aukerak talde txikitan lantzeko, hautatutako aukeren mapa egiteko.

Hirugarren saioa abenduaren 19an egin zen (17:00etatik 21:00etara) eta ondorengo egitaraua izan zuen:

- Web-foroko emaitzen aurkezpena: 3 item (irizpideak) + bilakaeraren 6 aukerak, haien beharrek eta etxebizitza eskaintzarekin.
- Biztanleriaren bilakaeraren aukerei, jasangarritasun-esparruei eta dentsitatei buruzko galdetegi indibidualari erantzutea.
- Talde txikitan lan egitea (6 talde): parte-hartzaileak talde ezberdinetan multzokatu ziren, papereko galdetegian adierazitako lehentasunen arabera.

Taldekako lanean, partaide bakoitzak bere proposamena aurkeztu eta taldearekin partekatu zuen, nabarmendutako argudioekin eta iritziekin. Idazkariak ekarpenak jaso zituen.

Jarraian, talde bakoitzak, adostutako irizpideetan oinarrituta, “Aurrerakinaren Atarikoaren nahi zuen mapa eraikitzen” hasi behar zuen, tamaina eta kolore ezberdinetako kartoi mehezko ebakinekin.

Nabarmentzekoa da taldekako lanerako denbora gutxiago egon zela, emaitzen aurkezpenaren lehenengo zatian prozesuan zeharreko funtzionamenduari, helburuei eta metodologiari buruzko Lantaldearen iritzi eta oharpen ezberdinak jasotzeko aprobeztatu baitzen.

Talde batzuek ez zuten mapa egiteko astirik izan eta lan hori urtarrilaren 22rako programatutako saiorako utzi zen.

[Ikus 14. Eranskina . Lantaldeari 3. saiorako egindako Deialdia]

[Ikus 15. Eranskina . Web-foroetako emaitzen txostena – 2. foroa]

Laugarren saioa:

Urtarrilaren 22ko saioa ondorengo egitarauarekin burutu zen:

- Abenduaren 19an hasitako taldekako lanarekin jarraitzea. Beraien proposamenak lantzen amaitu ez zutenei egin zitzaien deialdia.
- Deialdi orokorra. Azalpenen eta elkarrekin partekatzeko saioen etapa (10 minutu talde bakoitzarentzako, Lantaldeko beste kideek planteatutako galderei erantzuteko).
- Behin proposamenak aurkeztu ondoren, Lantaldearen eta talde teknikoaren azalpenak eta galderak. Gainera, balorazio globalak.
- Lantaldeak aurkeztutako aukerak lehenestea..
- Saioaren eta parte-hartze prozesuaren ebaluazioa.

Taldeek (6) beraien proposamenak amaitu ahal izan zituzten eta Lantaldeari aurkeztu. Behin azalpenak amaitu eta zalantzak eta iradokizunak argitu ondoren, partaide bakoitzak, banaka, aukerak baloratu eta lehenetsi zituen, azalpenen arabera.

[Ikus 16. Eranskina . Lantaldeari 4. saiorako egindako Deialdia]

4.3 Ebaluazio-aldia

Saio bakoitzean saioaren funtzionamendua baloratu zen eta azkeneko saioan ordura arte burututako parte-hartze prozesuaren balorazioa egin zen.

Ikus informazioa **6. kapituluan**

5. 2 Fasearen emaitza nagusiak - balorazio eta ekarpen nabarmenak -

Lantaldeak zuzeneko lau saiotan zehar eta bi web-foroetan egindako lana bi multzo handitan laburbil daiteke:

Batetik, biztanleria eta etxebizitza beharrak eta eskaintza definitzeko irizpide orokorrei dagozkien emaitzak eta ekarpenak; eta, bestetik, aukera ezberdinei dagokienez, talde ezberdinek (biztanleriaren bilakaeran oinarrituta osatutakoak) egindako ekarpen eta proposamenen emaitzak.

Aipatzekoa da aurretiatzko azterlanen lehenengo fasean adostutako ereduetan oinarrituta landu zirela irizpideen eta aukeren proposamenak.

5.1 Etxebizitza beharrak eta eskaintza definitzeko irizpideen balorazioaren emaitzak

Atal honetan, web-foroen eta hausnarketa-saioaren ondoriozko **birformulatzeproposamenak** eta **baieztapenen proposamen berriak** aurkezten dira.

Proposamenak aurkeztu ziren, hausnarketa-saioan jasotako adostasun/lehenetasun mailekin. Baieztapen bakoitzean, bi koloretan aurkeztu ziren jasotako ekarpenak: web-foroetan jasotako ekarpenak (titularrenak eta ordezkoenak) **letra lodiz** eta zuzeneko saioan jasotakoak, **urdinez**.

1. Badago adostasun orokor bat: Planak, ahal duen neurrian, Getxoko bizilagunen etxebizitza eskariari erantzunak eman beharko lizkiokeela.

-Sakonago aztertu behar dira egungo arazoaren kausak eta horiek konpondu:

-Kontuan izan behar da arazo horiei aurre egiteko HAPOk berak daukan besteko ahalmena edo handiagoa daukaten beste tresna asko dagoela – udalaz gaindiko eta hirigintzaz kanpoko araudiak -.

- Etxebizitzaren prezio altuari (errenta edo erosketa), nagusiki, gazteek duten gaitasun ekonomiko falta gehitzen badiogu, horrek azaltzen digu etxebizitza eskariaren gabezia eta ondoriozko belaunaldien arteko ordezkatzeko falta.

-Proposamen gisa: Udalak gazteak mantentzeko eta etxebizitzaren prezioei eusteko politika publikoak lehenetsi behar ditu. Udalerriko gazteek aldeko apustua egitea, etxebizitza eskuratzeko aukera bermatuz eta udalerrian bertan enplegurako eta auto-enplegurako aukerak sortuz.

-Etxebizitza-mota anitzen ze proportzio den beharrezkoa nahi dugun herri-eredurako: babespekoa edo librea; eta zer egikaritu beharko litzatekeen 2001eko HAPOn egikaritzeke dauden Egikaritze-unitateetan (nagusiki, Babes Ofizialeko Etxebizitzak).

Baieztapenaren aldaketari dagokionez, honakoak izan ziren onespem-mailak:



Balorazioak: **32**

2. Gehienbat, Getxoko biztanleriak adierazitako beharrei erantzuna ematea lehenetsi behar dela uste da, **bereziki, jende gaztearen beharrei; bigarren mailakotzat jotzen da Bilbo Metropolitarrako beste udalerrri batzuetatik datorren jendearen etxebizitza beharra.**

Baieztapenaren aldaketari dagokionez, honakoak izan ziren onespem-mailak:



Balorazioak: 34

3. Etorkizuneko plan orokorrak, behin biztanleriaren bilakaeraren beharrak zehaztu ondoren, lurzoru urbanizagarriaren beharrezko gutxieneko zatia okupatu beharko luke (beraz, 250,9 hektarea horien gainerako lurzorua sailkapenetik kendu beharko litzateke), lehenengo fasean Lantaldean adostu zen dentsitate ertaineko premisari jarraiki, **biztanleriaren bilakaeraren beharrei erantzuteko.**

Baieztapenaren aldaketari dagokionez, honakoak izan ziren onesp-en-mailak:



Balorazioak: 36

4. Kudeatzeke dauden egikaritze-unitateek, beraien diseinuan, espazio libreen sistema orokor propioak jaso beharko lituzkete beraien mugen barruan. Hau da, "haien burua hornitzen" saiatu beharko lirateke, nahiz eta etxebizitzak hartzeko gaitasuna murriztu.

Titularren Taldea (web-foroa):



Balorazioak: 33

5. Positibotzat baloratzen da Plan orokorrak, hiri-lurzoruko bere bizitegi eskaintzaren barruan, etxebizitza hutsen portzentaje bat zenbatzea, teknikoki bideragarritzat jotzen den portzentajerik handiena. **Gainera, komenigarria izango litzateke etxebizitza horiek mugiarazteko zerga-pizgarri bidezko mekanismoak eta politikak aktibatzea, etxebizitza horien jabeen eskubideak nahikoa babestuko dituen legeria baten babespean.**

Baieztapenaren aldaketari dagokionez, honakoak izan ziren onesp-en-mailak:



Balorazioak: 29

6. Lantaldeak adostutako erabilera misto bateragarrien eredia kontuan hartuta (merkataritza-sarea, etxebizitzak, sistema libreak, etab.), uste da lokalak birmoldatzetik aterako liratekeen etxebizitzaren portzentaje bat bizitegi eskaintzaren barruan zenbatzea ez dela aukerarik onena.

Baieztapenaren aldaketari dagokionez, honakoak izan ziren onesp-en-mailak:



Balorazioak: 27

7. Plan orokorrak, bere araudiarekin, etxebizitza handiak zatikatzeko aukera erraztearen garrantzia azpimarratzen da, **eraginkortasunari eta jasangarritasunari dagozkion irizpideak kontuan hartuta, energia-kontsumoa murriztea bermatzeko.**

Baieztapenaren aldaketari dagokionez, honakoak izan ziren onesp-en-mailak:

(36 / % 100)

Balorazioak: 36

8. Positiboki baloratzen da plan orokorrak, bere araudiarekin, hiri-lurzoruan dauden atikoetako espazioak erabiltzeko bidea ematea, etxebizitza erabilerarekin edo jarduera bateragarrien erabilerarekin, **betiere, modu arautuan egiten bada, espazioek segurtasunari, osasunari, bizigarritasunari eta besteri dagozkien eskakizunak betez.**

Baieztapenaren aldaketari dagokionez, honakoak izan ziren onesp-en-mailak:

(36 / % 97)

(1 / % 3)

Balorazioak: 37

9. Oro har, beharrezkotzat jotzen da, hiri-lurzoruan kokatutako kudeatu gabeko egikaritze-unitateetan **babes publikoko etxebizitzaren % 40ko** proportzio hori handitzen saiatzea, **nagusiki, alokairuzkoena.**

(20 / % 74)

(3 / % 11)

(2 / % 7)

(2 / % 7)

Balorazioak: 27

Lantaldeak hala eskatuta gehitutako baieztapen proposamen berria:

Lantaldeak dio babes publikoko etxebizitza sustatu behar dela, batez ere, alokairu sozialekoa, berrikus daitekeena eta txandakakoa.

(34 / % 100)

Balorazioak: 34

[Ikus 1. Eranskina . Aurrerakinaren Atarikoaren 2. Faseko ondorioen txostena]
[Ikus 9. Eranskina . Web-foroen eta Lantaldearen saioaren emaitzak]

Bigarren eta hirugarren saioen artean, Lantaldearentzako (titularrak eta ordezkioak) web-foro berria abiarazi zen, bigarren saioan landu ez ziren gaiak baloratzeko eta irizpideetan eta eszenatoki edo aukera ezberdinetan gehiago sakontzeko. Parte-hartzearen emaitzak hirugarren saioan aurkeztu ziren, abenduaren 19an.

Bigarren foroaren emaitzak interpretatzeko eta analizatzeko kontuan izan beharreko elementuak:

1. Parte-hartze txikia izan zuen web-foroak. Lantaldeko Titularren taldeko 18 lagunek eta Ordezkoen taldeko 6 lagunek bakarrik parte hartu zuten. Beraz, garrantzitsua da kontuan hartzea Lantaldeko partaideen gehiengoak ez duela aurkeztutako informazioa baloratu eta komentatu.
2. Zuzeneko hirugarren saioan ez zen foroko emaitzen gaineko hausnarketarik egin, aurkeztu besterik ez ziren egin eta Lantaldeari eman zitzaion hitza, hausnarketak, oharpenak eta azalpenak eman zitzaizkien.²

Jarraian emaitzak erakusten dira, web-foroan (titularrak eta ordezkioak) jasotako balorazioekin:

1. Gehienbat, Getxoko biztanleriak adierazitako beharrei erantzuna ematea lehenetsi behar dela uste da, bereziki, jende gaztearen beharrei; bigarren mailakotzat jotzen da Bilbo Metropolitarrako beste udalerrri batzuetatik datorren jendearen etxebizitza beharra. LZP-k onartutako 2.276 etxebizitzetatik, ze portzentaje zenbatu beharko litzateke Bilbo Metropolitarrako eremuko beste udalerrri batzuetatik etorritako jendearentzako?

Balorazio onena jaso duen aukera:

% 0, hau da, 0 etxebizitza



Balorazioak: **21**

2. Lantaldeak adostutako erabilera misto bateragarrien eredua kontuan hartuta (merkataritza-sarea, etxebizitzekin bateragarriak diren jarduerak, etab.), uste da lokalak birmoldatuz aterako liratekeen etxebizitzaren portzentaje bat bizitegi eskaintzaren barruan zenbatzea ez dela aukerarik onena. Aukeren proposamena, Lantaldeak zela zenbatu nahi duen aukera dezan:

Balorazio onena jaso duen aukera:

Erdi-murriztailea. Kasuen eta egoeren arabera zenbatzea.



Balorazioak: **22**

3. Kudeatu gabeko egikaritze-unitateetan, 2001eko HAPOn finkatutakoa baino dentsitate handiagoa onartzen badute eta hiri-bilbearen ingurunearen beharren arabera, bizitegi erabilera ez diren baina erabilera horrekin bateragarriak diren beste erabileren dentsitatea handitzeari lehentasuna ematea, eredu mistora hurbiltze aldera.

² Foroko emaitzak aurkezteko tartean, Lantaldeko kide batzuek, ordura arte landutako eta aplikatutako funtzionamenduari, helburuei, dinamikei eta metodologiei buruzko beraien iritzia eta pertzepzioak azaltzeko aprobetxatu zuten tarte hori.

(12 / % 57)

(4 / % 19)

(2 / % 10)

(1 / % 5)

(1 / % 5)

(1 / % 5)

Balorazioak: **21**

Laugarren itema ez zen aurkeztu, taldekako laneko saioan sakonago landu baitzen.

[Ikus 1. Eranskina . Aurrerakinaren Atarikoaren 2. Faseko ondorioen txostena]

[Ikus 15. Eranskina . Web-foroetako emaitzen txostena – 2. foroa]

5.2 Taldeek aukera anitzekin lotuta aurkeztutako ekarpenen eta proposamenen emaitzak

Behin-behineko emaitzak; zenbait taldek datu eta informazio batzuk baliozkotzea falta da.

Hirugarren eta laugarren saioetan, Aurrerakinaren Atarikoaren mapa-proposamen ezberdinen prestakuntza landu zen taldean. Sei talde eratu ziren, biztanleriaren bilakaeraren eta etxebizitza beharren proposamenetan oinarrituta:

A1	Urteko galera / Decrecimiento anual de población	% 0,706koa / del 0'706 %
	Biztanle-saldoa 2023an/ Saldo de Habitantes en 2023	-5.327
	Etxebizitza eskaintza / Oferta de Viviendas	0
	Egiteke gehienezko etxe. / Viv. máximas a ejecutar	0
	Lurzorua okupazioa / Ocupación de suelo	0
A2	Urteko galera / Decrecimiento anual de población	% 0,4846koa / del 0'706 %
	Biztanle-saldoa 2023an/ Saldo de Habitantes en 2023	-3.632
	Etxebizitza eskaintza / Oferta de Viviendas	2.000
	Egiteke gehienezko etxe. / Viv. máximas a ejecutar	1.000
	Lurzorua okupazioa / Ocupación de suelo	Hiri-lurzorua bete / Colmatar el suelo urbano
A3	Urteko galera / Decrecimiento anual de población	% 0,35koa / del 0,35 %
	Biztanle-saldoa 2023an/ Saldo de Habitantes en 2023	-2.218
	Etxebizitza eskaintza / Oferta de Viviendas	3.640
	Egiteke gehienezko etxe. / Viv. máximas a ejecutar	1.740
	Lurzorua okupazioa / Ocupación de suelo	Hiri-lurzorua + 35 Ha / Suelo Urbano + 35H
A4	Urteko galera / Decrecimiento anual de población	% 195koa / del 0,195 %
	Biztanle-saldoa 2023an/ Saldo de Habitantes en 2023	-1.249
	Etxebizitza eskaintza / Oferta de Viviendas	4.803
	Egiteke gehienezko etxe. / Viv. máximas a ejecutar	2.230
	Lurzorua okupazioa / Ocupación de suelo	Hiri-lurzorua + 42 Ha / Suelo Urbano + 42H
A5	Urteko galera / Decrecimiento anual de población	% 0,122koa / del 0'122 %
	Biztanle-saldoa 2023an/ Saldo de Habitantes en 2023	-783
	Etxebizitza eskaintza / Oferta de Viviendas	5.362
	Egiteke gehienezko etxe. / Viv. máximas a ejecutar	2.527
	Lurzorua okupazioa / Ocupación de suelo	Hiri-lurzorua + 50,5 Ha / Suelo Urbano+ 50,5 H
B	Biztanleriari eustea/ Mantenimiento de la Población	
	Biztanle-saldoa 2023an/ Saldo de Habitantes en 2023	0

	Etxebizitza eskaintza / Oferta de Viviendas	6.302
	Egiteke gehienezko etxe. / Viv. máximas a ejecutar	3.028
	Lurzoruaren okupazioa / Ocupación de suelo	Hiri-lurzorua + 65,5 Ha / Suelo Urbano+ 65,5 H
C1	Urteko hazkundera / Crecimiento anual de población	% 0,119koa / del 0'119 %
	Biztanle-saldoa 2023an/ Saldo de Habitantes en 2023	776
	Etxebizitza eskaintza / Oferta de Viviendas	7.232
	Egiteke gehienezko etxe. / Viv. máximas a ejecutar	3.524
	Lurzoruaren okupazioa / Ocupación de suelo	Hiri-lurzorua + 80 Ha / Suelo Urbano+ 80 H
C2	Urteko hazkundera / Crecimiento anual de población	%0,38koa / del 0'38 %
	Biztanle-saldoa 2023an/ Saldo de Habitantes en 2023	2.525
	Etxebizitza eskaintza / Oferta de Viviendas	9.376
	Egiteke gehienezko etxe. / Viv. máximas a ejecutar	4.568
	Lurzoruaren okupazioa / Ocupación de suelo	Hiri-lurzorua + 106 Ha / Suelo Urbano+ 106 H

Ondorengo taldeak eratu ziren, parte-hartzaile kopuru ezberdinekin:

A1 Taldea: 17 partaide

A2 Taldea: 7 partaide

A3 Taldea: 6 partaide

A5 Taldea: 4 partaide

B Taldea: 10 partaide

C2 Taldea: partaide bat

A4 eta C1 taldeetan ez zen Lantaldeko ordezkariarik egon.

Lantaldeek aurkeztutako proposamenekin lotuta egindako ekarpen nagusiak:

A1. Biztanleriaren urteko galera (-5.327 bizt.) eta eskaintzeko 0 etxebizitza

- Oinarrizko datuak:

Biztanleriaren urteko galera	% 0,706koa / del 0'706 %
Biztanle-saldoa 2023an	-5.327
Etxebizitza eskaintza	650
Etxebizitza berriak, hiri-lurzoruko kudeatutako egikaritze-unitateetan	Erabilera publikoko espazio libre bilakatu
Etxebizitza berriak, hiri-lurzoruko berrikusi beharreko egikaritze-unitateetan	Erabilera publikoko espazio libre bilakatu
Etxebizitza berriak lurzoru urbanizagarrian	0
Etxebizitza berriak lurzoru urbanizagarriko jarduera ekonomikoko sektoreetan	0
Etxebizitza berriak, hiri-lurzoruko jarduketa isolatuetan	0
Kudeatu beharreko etxebizitza hutsak, alokairuan emateko	650
Zortzi urtean egikaritzeko gehienezko kopurua	650
Lurzoruaren okupazioa	0

- Jasangarritasunari dagozkion irizpideekin lotutako lehenespena:

Taldearen ustez, jasangarritasunaren ingurumenaren alorra betetzeak gainerakoak betetzea galdatzen du. Ezinezkoa da ingurumenaren alorra betetzea, gainerakoak ondo egin ezean.

- Dentsitateen lehenespena:

Dentsitateei dagokionez, ez da lehenesten, aipatzen dute hobe dela dagoena zaintzeari lehentasuna ematea.

- Etxebizitza kopurua eta horiek kokatzeko zonak:

Talde honen proposamena 0 etxebizitza berri eskaintzea da, espazio libreen sistema orokor gisa proposatutako zonak proposatuz.

- Aurkeztutako proposamenaren argudio nagusiak

Eraikuntzaren egungo ereduak egungo jasangarritasunik eza ekarri du maila guztietan: finantza, gizarte eta ekologia mailan.

Helburua dauden baliabideak aprobetxatzea, ondare historikoa eta artistikoa eta ingurune naturala berreskuratzea eta zaintzea eta nekazal sektorea indartzea izan behar da.

Uste da ez dela gehiago eraiki behar, etxebizitza berria beste modu batera bultzatu behar dela: ondarea kontserbatuz (etxetxoak, baserri historikoak...), dauden etxebizitzak birgaituz, berreskuratuz eta horiei irtenbidea emanez: etxebizitza hutsak, atikoak, etxebizitzak zatikatzea, birgaitzea... Aukera honi etxebizitza berriak eraikitzeari baino lehentasun handiagoa eman behar zaio.

Sistema orokorren barruan, egungo benetako aisiarako eremuak zenbatu behar dira: Galea, Andra Mari, Udalaren jabetzakoa den golf ingurua, etab. Oraindik egikaritu ez diren egungo HAPOren egikaritze-unitateak espazio libreen sistema orokor bihurtu behar dira, horrela kontabilizatu ahal izateko eta, era horretan, hiri-lurzoruan daukagun defizita gainditzeko.

Dagoeneko kudeatuta dauden arren eraiki ez diren egikaritze-unitateetako orubeen diseinua ere aldatu egin behar da, espazio libreen sistema orokor bihurtzeko; baita eraiki gabe dauden hiri-lurzoruko orube guztiak ere.

Getxok daukan kapital naturala hobetu behar da. Azterna ekologikoa mantentzea eta, ahal izanez gero, murriztea eta, era horretan, udalerrian daukagun altxor naturalari eustea.

Egungo krisialdiaren aurretik zegoen biztanleriaren eta haren beharren arteko orekara itzultzea.

Bestalde, Getxok potentzial turistiko, kultural... handia dauka. Hori kudeatzen eta sustatzen jakin behar da, herritarren ongizateari begira. Adibidez, Andra Marik potentzial ekonomikoa eta lan arlokoa dauzka: gazteentzako eta, oro har, biztanleriarentzako nekazaritza mantentzea eta, era horretan, herria elikatzea (nekazaritzako azokak, etab.). Horrela, tokiko mailan pinudiak eta bestelako guneak manten daitezke.

Proposamen horiek maila guztietan hobetuko lukete gizakiaren ongizatea, ekosistemen zerbitzuak hobetuko bailirateke.

[Ikus 17. Eranskina . Lantaldearen proposamena – A1]

A2. Biztanleriaren urteko galera (- 3.632 bizt.) eta 2.000 etxebizitza eskaintzea

- Oinarrizko datuak:

Biztanleriaren urteko galera	% 0,47koa / del 0'47 %		
Biztanleria-saldoa, 8 urteren ondoren	-3.088		
Etxebizitza eskaintza	2.617		
Etxebizitza berriak, hiri-lurzoruko kudeatutako egikaritze-unitateetan	633	126 boe	507 eL
Etxebizitza berriak, hiri-lurzoruko berrikusi beharreko egikaritze-unitateetan	603	242 boe	361 eL
Etxebizitza berriak lurzoru urbanizagarrian	412	309 boe	103 eL
Etxebizitza berriak lurzoru urbanizagarriko jarduera ekonomikoko sektoreetan (5,5 Ha)	119	89 boe	30 eL
Etxebizitza berriak, hiri-lurzoruko jarduketa isolatuetan	200 eL		
Kudeatu beharreko etxebizitza hutsak, alokairuan emateko	650		
Zortzi urtean kudeatzeko gehieneko kopurua (eskaintzaren % 50)	1.308		
Lurzoruaren okupazioa	Hiri-lurzorua birbanatzea + 12,5		

- Jasangarritasunari dagozkion irizpideekin lotutako lehenespena:

Jasangarritasunari dagozkion irizpideen lehentasun-ordena honakoa izan behar dela adostu du taldeak: 1. ingurumena, 2. soziala, 3. kulturala eta 4. ekonomikoa.

- Dentsitateen lehenespena:

Dentsitateei dagokien lehentasun-ordena honakoa izan behar dela adostu du taldeak:

1. Dentsitate ertaina: beheko solairua + 4 + atikoa (5,5 solairu) / Non kokatu?: Lurzoru urbanizagarriko sektorean
2. Dentsitate altua: beheko solairua + 6 (7 solairu) / Non kokatu?: Hiri-lurzoruan, etorkizuneko egikaritze-unitateetan
3. Dentsitate ertaina-baxua: beheko solairua + 2 (3 solairu)

- Etxebizitza kopurua eta horiek kokatzeko zonak:

Zona: 16.1 Egikaritze-unitatean: Espazio libreen 6.700 m² eta babes ofizialeko 57 etxebizitza.

Kopurua: Dentsitate ertain-altua: beheko sol. + 6; eraikigarritasuna: 1,25 m²s/ m²t - 57 etxebizitza

Zona: 24.2 Egikaritze-unitatean. Espazio libreen 18.000 m² eta 356 etxebizitza libre eta babes ofizialeko 164 etxebizitza.

Kopurua: Dentsitate ertain-altua: beheko sol. + 6; eraikigarritasuna: 1,25 m²s/ m²t - 546 etxebizitza

Gainerako zonak espazio libreen sistema orokorrak izango lirateke.

Lurzoru urbanizagarri berrian:

Dentsitate ertaina: Beheko sol.+4+A; eraikigarritasuna: 0,95 m²s/ m²t

- 412 etxebizitza bizitegi sektoreko 7 hektareatan, Ibarbengoako geltokiaren zonan
- 119 etxebizitza jarduera ekonomikoko sektoreko 5,5 hektareatan

- Jardueradun hektarea kopurua eta horiek kokatzeko zonak:

Zona: Lurzoru Urbanizagarri berrian
Kopurua: 5,5 hektarea

- Aurkeztutako proposamenaren argudio nagusiak:

Proposamena A2 proposamenari alternatiba formulatzean datza, A2bis deritzona:

Hiri-lurzorua erabat betetzea:

Horrek zera esan nahiko luke, etxebizitza kopuruari dagokionez:

- jarduketa integratuetan (2001eko HAPOrekin, Egikaritze-unitate deitzen dira)
= 2.100 etxebizitza.
- jarduketa isolatuetan
= 200 etxebizitza.
- okupatu gabeko etxebizitzetan (okupatu gabeko etxebizitzen % 30) = 650 etxebizitza huts

Guztira, gutxienez = 2.950 etxebizitza, ia B aukeraren eskaintza (3.640 etxebizitza) eta biztanleriari eustea ahalbidetzen dute, baita Familien Batez besteko Tamaina txikituko balitz ere (FBT: etxebizitza berean bizi den pertsona kopurua; Getxon, 2,792 pertsona gaur egun, eta 2,542 pertsona 2023an).

FBT-ren Hipotesia (egungo 2,792 zifratik, 2023an 2,542ra jaistea) eztabaidagarria da, jaitsiera ez baita azkeneko 15 urteotakoa bezain azkarra izango.

Aukera hori legitimoa da 2001eko HAPOren lurzoru urbanizagarri zaharra babesteko (Andra Mariko zona), etorkizuneko HAPOrako lurzoru urbanizaezin birkalifikatuz.

Jarduera ekonomikoak bizitegi-erabilerekin bateragarriak izango dira (I+G+b, merkataritza, ostalaritza, hirugarren sektorea...). erabileren irtenbide trinkoago baten bitartez.

Garrantzitsua deritzogu jarduera ekonomikoetara bideratutako lurzorua merkataritza-guneak sortzeko ez erabiltzeari.

Hiri-lurzoruan erdi-mailako dentsitatearen alde egiten da ($0,95\text{m}^2\text{t} / \text{m}^2\text{s} = 50/70$ etxebizitza hektareako).

Dauden etxebizitza guztiak (lokalak eta atikoak etxebizitza bihurtzea, etab.) aprobetxatzeko aurkeztutako planteamendu horrekin, biztanleriari eutsi ahal izango litzaioke. Gainera, eremu urbanizagarriak eraiki gabe mantendu ahal izango liriateke, eta landa-eremuak ere bere horretan mantenduko liriateke.

[Ikus 18. Eranskina . Lantaldearen proposamena – A2]

A3. Biztanleriaren urteko galera (- 2.218 bizt.) eta 3.640 etxebizitza eskaintzea

-Oinarrizko datuak:

Biztanleriaren urteko galera	% 0,38koa / del 0,38 %		
Biztanle-saldoa 2023an	-2.411		
Etxebizitza eskaintza	3.413		
Etxebizitza berriak, hiri-lurzoruko kudeatutako egikaritze-unitateetan	633	126 boe	507 eL
Etxebizitza berriak, hiri-lurzoruko berrikusi beharreko egikaritze-unitateetan	1.330	617 boe	713 eL
Etxebizitza berriak lurzoru urbanizagarrian	648	486 boe	162 eL
Etxebizitza berriak lurzoru urbanizagarriko Jarduera Ekonomikoetakosektoreetan (7 Ha)	152	114 boe	38 eL
Kudeatu beharreko etxebizitza hutsak, alokairuan emateko	650		
Zortzi urtean egikaritzeko gehienezko kopurua (eskaintzaren % 50)	1.706		
Lurzoruaren okupazioa	Hiri-lurzorua birbanatzea + 18,5 Ha		

- Jasangarritasunari dagozkion irizpideekin lotutako lehenespena:

Jasangarritasunari dagokion irizpideen lehentasun-ordena honakoa izan behar dela adostu du taldeak: 1. soziala, 2. ingurumena, 3. kulturala eta 3. ekonomikoa (azken biak puntuazio berarekin).

- Dentsitateen lehenespena:

Dentsitateei dagokien lehentasun-ordena honakoa izan behar dela adostu du taldeak:

1. Dentsitate ertaina: beheko solairua + 4 + atikoa (5,5 solairu)
2. Dentsitate ertaina-baxua: beheko solairua + 2 (3 solairu)
3. Dentsitate altua: beheko solairua + 6 (7 solairu)

- Etxebizitza kopurua eta horiek kokatzeko zonak:

Zona: 16.1 Egikaritze-unitatean: Espazio libreen 6.700 m² eta babes ofizialeko 57 etxebizitza.

Kopurua: 2001eko HAPOren diseinuari eustea

Zona: 16.3 Egikaritze-unitatean: Espazio libreen 6.981 m² eta 65 etxebizitza libre.

Kopurua: 2001eko HAPOren diseinuari eustea

Zona: 24.2 Egikaritze-unitatean: Espazio libreen 18.000 m² eta 356 etxebizitza libre eta babes ofizialeko 164 etxebizitza.

Kopurua: % 60 Hiri-baratzeen sistema orokorrerako (baratzak erregularizatuta) eta % 40 etxebizitzetarako. 400 bat etxebizitza, 0,95 m²/m²s eraikigarritasunarekin eta Beheko sol.+4+A (5,5 SOLAIRU) tipologiarekin.

Zona: 36.1 Egikaritze-unitatean: Espazio libreen 11.000 m², 228 etxebizitza libre, babes ofizialeko 100 etxebizitza eta 180 etxebizitza tasatu.

Kopurua: 2001eko HAPOren diseinuari eustea, dentsitateak errespetatuz.

Zona: 42.1 Egikaritze-unitatean: 146 etxebizitza libre eta babes ofizialeko 60 etxebizitza.

Kopurua: Dentsitatea handitzea. 300 bat etxebizitza, 0,80 m²/m²s eraikigarritasunarekin

eta Beheko sol. ½+3+A (4 SOLAIRU) tipologiarekin.

Gainerako zonak espazio libreen sistema orokorrak izango lirateke.

Lurzoru urbanizagarri berrian:

800 etxebizitza 18,5 hektareatan

